ALKATETZA DEKRETUA

Barakaldoko Udalak apirilaren 30ean egindako 5/2015 zenbakiko Udal Batzaren bilkura arruntean *Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak emateko araudia* behin-behingoz onartzea erabaki zuela aintzat hartuta.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 b) artikuluan aurreikusitakoa betez, alegia, jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia egitea, 2015eko maiatzaren 14an Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 90. alean iragarkia argitaratu zen, iragarkia BAOn argitaratu eta handik 30 asteguneko epean interesatuek alegazioak edo erreklamazioak aurkez zitzaten.

Arestian aipatutako epea igarota, alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu ez dela aintzat harturik.

Aipatu Araudiaren behin-behineko onarpenean adierazten den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenari jarraiki, jendaurreko erakustaldi eta entzunaldi epea igarota, erreklamaziorik egon ezean, Araudia behin betiko onartutzat joko da, Alkatetza Dekretuaren bitartez iragarri eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik

DECRETO DE ALCALDÍA

Visto el acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo, en sesión ordinaria nº 5/2015, de fecha 30 de abril, por el que se aprueba, con carácter inicial, la *Normativa Reguladora para la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje de euskera*.

Visto el Anuncio publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 90, de 14 de mayo de 2015, a efectos de información pública y audiencia de los interesados, para, en su caso, la presentación de alegaciones ó reclamaciones durante el plazo de 30 días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación en el BOB, en cumplimiento de lo previsto por el artículo 49 b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Visto que transcurrido el citado plazo, no se ha presentado alegación alguna a la citada aprobación.

Considerando que en el propio acuerdo plenario de aprobación inicial de la citada Normativa, se establece que ésta entrará en vigor conforme a lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, de Bases de Régimen Local que señala que, transcurrido el periodo de información pública y audiencia, sin que se hubieran formulado reclamaciones, la Normativa se entenderá

argitaratuko da. Halaber, 15 asteguneko epean indarrean sartuko da.

definitivamente aprobada, lo que habrá de anunciarse a través de Decreto de Alcaldía y se publicará íntegramente, en el Boletín Oficial de Bizkaia, entrando en vigor una vez transcurra el plazo de quince días hábiles.

Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak (abenduaren 17ko 301 zenbakiko BOE) aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 r) artikuluak eta Barakaldoko Elizateko Udaleko Organoei eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Arautegiaren (2000ko irailaren 11ko 174 zenbakiko BAO) 10- 18 artikuluak eta Udalbatzak Araudia onartzeko hartutako akordioan egiten den eskuordetzea bera aintzat hartuta, ALKATETZAri dagokio ebazpena egitea araudia behin betiko onar dadin.

Considerando que de conformidad con lo previsto en los Arts. 21.1 r) de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local (BOE nº 96, de 22 de abril de 1999), modificada por la Ley 57/2003, de 16 de Diciembre, de Medidas de Modernización del Gobierno Local (BOE nº 301 de 17 de Diciembre) y 10-18 del Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de la Anteiglesia de Barakaldo (BOB nº 174, de 11.09.00) y la propia delegación hecha en el acuerdo de pleno por el que se aprueba la Normativa, corresponde a la ALCALDÍA la adopción de la resolución para la constancia expresa de la aprobación definitiva.

Aipatu diren legezko xedapenak eta aplikatu beharreko gainerakoak aintzat hartuta, Alkatetza-Lehendakaritzak

Vistos los preceptos citados y demás de aplicación, la Alcaldía-Presidencia

EBATZI DU

DISPONE

LEHENA: Jendaurreko erakustaldi epean alegaziorik aurkeztu ez dela aintzat harturik, Barakaldoko Udalbatzak 5/2015 zenbakiko bilkura arruntean onetsitakoari jarraiki, *Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak emateko araudia* behin betiko onartutzat ematea:

PRIMERO: Declarar definitivamente aprobada la *Normativa reguladora para la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje de euskera*, en cumplimiento de lo aprobado por el Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria nº 5/2015, al no haberse formulado alegaciones al mismo en el periodo de exposición pública:

EUSKARA IKASTEKO HELDUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

Euskaren Erabilera Arauzkotzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 5.1 artikuluan Euskal Herriko herritar guztiei hizkuntza ofizialak ahoz nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen die, eta halaber, 5.3 artikulak behartu egiten ditu herri-aginteak eskubide hauek bermatzera Euskal Autonomia Erkidegoan eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Halaber, Barakaldoko Udalaren Udal Batzak 2009ko abenduaren 30ean egindako 30/2009 zenbakiko bilkura arruntean onartu zen Euskararen Erabilera Planean euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko asmoa jaso zen. Helburu hau betetzearren, jardunbide egokitzat jotzen da Barakaldoko bizilagunei euskararen ikaskuntza errazteko diru-laguntzak ematea eta, ikaskuntza hau bereziki ahalbidetzea baliabide ekonomiko gutxiago dituztenei.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, bereziki 28. artikuluak, xedatzen duenaren arabera, tokiko administrazioek bestelako Administrazio Publikoei legozkiekeen jarduera osagarriak burutu ditzakete, besteak beste, hezkuntza edo kultura esparruetan eta beren jardunak gainontzeko administrazioekin koordinatu ahal dituzte, gure kasuan, euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko erabilitako baliabideen eraginkortasunik handiena lortze aldera.

Helburu horiek lortzeko,

NORMATIVA REGULADORA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS A PERSONAS ADULTAS PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A tenor de lo dispuesto en la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, en su art. 5.1 se reconoce a todos los ciudadanos del País Vasco su derecho a conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito, e igualmente en el art. 5.3 se obliga a los poderes públicos a garantizar el ejercicio de esos derechos, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma a fin de que sean efectivos y reales.

Igualmente en el Plan de Uso del Euskera, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo, en sesión ordinaria nº 30/2009, celebrada el día 30 de diciembre de 2009 se recoge la intención de fomentar y normalizar el uso del euskera; objetivo para el cual se considera una línea de actuación eficaz la concesión de ayudas económicas para facilitar el aprendizaje del euskera a los vecinos de Barakaldo y, fundamentalmente, hacer posible tal aprendizaje entre aquellos que, desafortunadamente, cuentan con menos recursos económicos.

A tenor de lo dispuesto en la Ley de Bases de Régimen Local, particularmente el Art. 28, las Corporaciones Locales pueden realizar actividades complementarias de las propias de otras Administraciones Públicas y, en particular, las relativas a la educación, cultura... coordinando sus actuaciones con el resto de las administraciones a efectos de lograr la mayor eficacia, en nuestro caso, de los recursos destinados al fomento y normalización del uso del euskera.

A estos efectos y a partir de la

Barakaldoko Udalak duela hainbat urte Udal Euskaltegian euskara ikasten zuten barakaldarrei emandako diru-laguntzetatik bildutako esperientzia eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri anitzek xede honetarako onartuta dituzten diru-laguntza deialdiak abiapuntu hartuta, egoki eta komenigarri iritzi diogu laguntza orokorragoak ezartzeari, hizkuntza ko-ofizial honen ikaskuntzak udalerriko familien aurrekontuan izan lezakeen eragina leuntzeko asmoz.

experiencia derivada de anteriores subvenciones que el Ayuntamiento de Barakaldo ha concedido a los barakaldeses que estudiaban euskera en el Euskaltegi Municipal, así como de las diferentes convocatorias de ayudas que para este mismo fin tienen aprobadas otros municipios de la Comunidad Autónoma Vasca, se ha determinado la oportunidad y conveniencia de establecer unas ayudas de naturaleza más general que mitiguen la incidencia que el aprendizaje de esta lengua co-oficial pudiese tener en el presupuesto de las unidades familiares del municipio.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra onartzeko Estatuko Buruzagitzaren apirilaren 17ko 38/2003 Legearen helburua da administrazio publikoek eta, tartean, Legeko 3.1.b) artikuluak dioenez, Toki-administrazioa osatzen duten erakundeek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzea; 2003ko azaroaren 18ko EAOn (276 zenbakikoan) argitaratu zuten 38/2003 Legea.

Mediante la Ley 38/2003 de 17 de abril de la Jefatura del Estado se aprueba la Ley General de Subvenciones (BOE nº 276 de 18 de noviembre de 2003), siendo su objeto la regulación del régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por las Administraciones Públicas, entre las que se encuentran las entidades que integran la Administración Local según se recoge en el artículo 3.1b) de la Ley 38/2003,

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 17.2. artikuluak ezartzen duenez, aurrekontua betearazteko oinarrien esparruan onartu behar dira tokiko administrazioen diru-laguntzak arautzeko oinarriak, diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez edo diru-laguntza mota bakoitzari buruzko ordenantza espezifiko baten bidez. Gainera, hamalaugarren xedapen gehigarriak ezartzen du tokiko korporazioak antolatzeko eta funtzionatzeko baldintzetara egokitu behar direla nahitaez 38/2003 Legeak arautzen dituen prozedurak.

El artículo 17.2 de la Ley General de Subvenciones establece que las bases reguladoras de subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones, estableciéndose además en la Disposición Adicional decimocuarta de la citada Ley, que los procedimientos regulados en la Ley 38/2003 se adaptarán reglamentariamente a las condiciones de organización y funcionamiento de las corporaciones locales.

Aurreko guztia dela medio, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta hura garatzeko araudiarekin (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutakoa) bat, aipatutako Arauak xedatzen duenera egokitutako oinarriak onartu behar dira, diru-laguntzak emateko prozedura eta

La naturaleza de las ayudas a conceder y todo lo antedicho hacen precisa, conforme a lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y a su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de Julio la aprobación de unas Bases adecuadas a lo prescrito en

onuradunek bete behar dituzten eskakizun subjektiboak eta materialak arautzeko. Ildo horretan, Barakaldoko Udalak "Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak" arautzeko honako araudi hau prestatu du.

la citada Norma y que regulen tanto el procedimiento de concesión de subvenciones como los requisitos subjetivos y materiales a cumplir por los posibles beneficiarios. A tal efecto, se ha procedido a la elaboración de la presente normativa reguladora de las "Ayudas a personas adultas para el aprendizaje de euskera", del Ayuntamiento de Barakaldo.

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Araudi honen xedea HABEk homologatutako euskaltegiren batean matrikulaturiko helduei diru-laguntzak emateko arauak ezartzea da.

Diru-laguntzok arautuko dituen deialdia urtean behin egingo da eta une horretan Euskara gaiaren eskuduntza duen Arloaren aurrekontu partidaren edo partiden kontura ordainduko dira.

ARTÍCULO 1.- OBJETO

El objeto de la presente Norma es establecer el régimen de concesión de subvenciones para el aprendizaje de euskera de personas adultas matriculadas en algún euskaltegi homologado por HABE.

Las subvenciones se concederán anualmente previa la correspondiente convocatoria con cargo a la partida o partidas presupuestarias correspondiente al Área que ejerza las competencias en materia de Euskera.

2. ARTIKULUA – DIRU-LAGUNTZEN XEDE IZANGO DIREN IKASTAROEN EZAUGARRIAK

1. HABEk homologatutako zentroek emandako ikastaroak lagunduko dira diruz, ikastaro hauek bertan egindakoak zein autoikaskuntzakoak direla.

2. Halaber, aukeratutako ikastaroa (aurrez aurrekoa edo autoikaskuntzakoa) HABEk homologatutakoa izan beharko da, ikasleak diru-laguntza jaso ahal izateko.

3. Eskatzaileak urte osoan zehar egindako ikastaroetan (urritik ekainera bitartekoak), udako trinkoetan edo barnetegietan ordaindutako matrikula-gastuak diruz lagunduko dira.

4. Barnetegien kasuan, matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko, inoiz ez ostatu edo mantenu gastuak.

ARTÍCULO 2.- CARACTERÍSTICAS DE LOS CURSOS OBJETO DE SUBVENCIÓN

1. Podrán recibir subvenciones los y las alumnos/as de aquellos cursos, tanto presenciales como de autoaprendizaje, impartidos por centros de aprendizaje homologados por HABE.

2. Así mismo, el curso elegido (presencial o de autoaprendizaje) deberá estar homologado por HABE para que el o la alumno/a pueda optar a recibir la subvención.

3. Tendrán la consideración de subvencionables los gastos de matrícula abonados por el o la solicitante para la realización de cursos de euskera, ya sean de carácter anual (realizados de octubre a junio), intensivos de verano o barnetegis.

4. En el caso de los barnetegis, serán objeto de subvención únicamente los gastos de enseñanza, en ningún caso los

gastos de estancia o manutención.

3. ARTIKULUA - ONURADUNAK

Diru-laguntzen onuradunak aurreko artikuluan aipatutako ikastaroetan matrikulatutako barakaldarrak izango dira.

Hala ere, onuradunen artean diru-laguntza kopuru altuagoa jasoko dute ondoko kolektiboek:

- Arestian aipatutako ikastaroetan matrikulatutako guraso edo legezko tutoreek, beti ere 16 urtetik beherako seme-alabaren bat badute B, D edo ikasgaien % 50 baino gehiago euskaraz dituen ereduren batean ikasten eta eurekin bizi badira.
- Ikastaroak iraun duen bitartean langabezia egoeran zeuden pertsonek, beti ere egoera hau egiaztatzen badute, eta 6. artikuluan zehazten den proportzionaltasun irizpidearen arabera.
- Ikastaroak iraun duen bitartean Oinarrizko Errenta (OE) jasotzen ari ziren pertsonek, beti ere egoera hau egiaztatzen badute eta 6. artikuluan zehazten den proportzionaltasun irizpidearen arabera.

Kasu guztietan nahitaezko baldintza izango da eskatzailearen diru sarrerek diru-laguntza deialdian ezarriko diren mugak ez gainditzea.

ARTÍCULO 3.- BENEFICIARIOS/AS

Los o las beneficiarios/as de las subvenciones serán todos aquellos vecinos/as del municipio matriculados en alguno de los cursos a que se ha hecho referencia en el apartado anterior.

No obstante, dentro de este grupo de beneficiarios/as se favorecerá con una mayor cuantía económica a los siguientes colectivos:

- Padres, madres o tutores legales matriculados en alguno de los cursos anteriormente mencionados, que tengan hijos o hijas menores de 16 años estudiando en modelos B o D (o que tengan más del 50% de las asignaturas en euskera) y que convivan con ellos.
- Personas que, mientras realizaban el curso de euskera, se encontraban en situación de desempleo, siempre y cuando acrediten dicha situación y en base al criterio de proporcionalidad que se detalla en el artículo 6.
- Personas que, mientras realizaban el curso de euskera, estuviesen percibiendo la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) siempre y cuando acrediten dicha situación y en base al criterio de proporcionalidad que se detalla en el artículo 6.

En todos los casos será requisito imprescindible que los ingresos económicos no superen los límites establecidos en la convocatoria de ayudas.

4. ARTIKULUA - BETEKIZUN OROKORRAK

1. 16 urte baino gehiago izatea.

ARTÍCULO 4.- REQUISITOS GENERALES

1. Ser mayores de 16 años.

2. Barakaldon erroldatuta egotea, gutxienez, eskaera egin baino urte bete (1) lehenagotik.

2. Estar empadronado/a en el municipio de Barakaldo, con una antigüedad mínima de un año en el momento de formalizar la solicitud.

3. HABEK onetsitako euskaltegietan homologatutako ikastaroren bat egitea.

3. Realizar el aprendizaje en euskaltegis y cursos homologados por HABE.

4. Urte osoko ikastaroetan (urria – ekaina), eskatzaileak, gutxienez, emandako urrats / ebaluazio bat gainditu beharko du; (udako) ikastaro trinkoetan edo barnetegietan, berriz, ezinbestekoa izango da ikastaro osoa gainditzea.

4. En los cursos de duración anual (octubre – junio), el o la solicitante habrá de superar, al menos, un nivel / evaluación de los impartidos; mientras que en los cursos intensivos (de verano) o barnetegis será requisito imprescindible la superación total del curso.

5. Halaber, ikasleak, gutxienez, ikastaroan emandako orduen % 70 jaso beharko ditu.

5. Así mismo, el o la alumno/a deberá asistir, como mínimo, al 70% del total de horas impartidas en el curso.

6. Familia-unitatearen (hurrengo puntuan – 7 - jasotako zehaztapenak aintzat hartuta) diru-sarrerak kontuan izanda, diru-laguntza jaso ahal izango dute deialdiak ezarriko dituen diru-sarrerak gainditzen ez dituzten guztiek. Kalkuluak ondorengo irizpideari jarraiki egingo dira:

- *Kide bakarra: Lanbideen arteko gutxieneko soldata x 14 ordainsari x 2*
- *Familia kide bakoitzeko % 30eko igoera aplikatuko da*

6. Podrán recibir subvención todas aquellas personas cuya unidad familiar (teniendo en cuenta las especificaciones que al respecto se establecen en el apartado siguiente – 7 -) no supere los ingresos económicos que se establezcan en la convocatoria, en base al siguiente criterio de cálculo:

- *Un único miembro: Salario Mínimo Interprofesional x 14 pagas x 2*
- *Por cada miembro familiar adicional, se incrementará un 30%*

7. Kalkulu guztiak deialdiaren urtearen aurreko ekitaldiko errenta aitorpenaren arabera egingo dira, errenta mailatzat PFEZen Zerga-Oinarri guztien (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga-oinarria) batuketa hartuta. Eskatzaileak, diru-sarrerak izan arren, errenta aitorpena egin behar izan ez badu, edozein kontzeptu dela eta egiaztatutako diru-sarrera gordinen batuketaren % 95 hartuko da errentatzat.

7. Todos los cálculos se aplicarán en base a la declaración de renta del ejercicio anterior al año de la convocatoria, entendiendo como nivel de renta la suma de todas las Bases Imponibles del IRPF (base imponible general más base imponible del ahorro). Si el o la solicitante, a pesar de haber tenido ingresos, no ha tenido que presentar la declaración de renta, se computará como renta el 95 por ciento de la suma de los ingresos brutos acreditados por cualquier concepto.

Familia egoeraren arabera, hiru talde ezarriko dira kalkulua egiteko:

Según la situación familiar, se establecerán tres grupos de cálculo:

7.1. Baldin eta eskatzailea gurasoen etxean erroldatua badago:

7.1.1. Kide bakartzat har dadin ondorengo eskakizunetako bat bete beharko du:

- Bere errenta aitorpena aurkeztea.
- Gurasoen errenta aitorpenean ez agertzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ziurtagiria aurkeztea berak ez duela errenta aitorpena egin egiaztatzeko.

7.1.2. Eskatzailea ez da kide bakartzat hartuko gurasoen errenta aitorpenean agertzen bada; kasu horretan aitorpenean agertzen diren guraso eta anai-arrebak hartuko dira kidetzat.

7.2. Baldin eta eskatzaileak bere familia unitate propioa osatu badu, kidetzat hartuko dira bai bikotekidea bai eta errenta aitorpenean agertzen diren seme-alabak ere.

7.3. Baldin eta eskatzailea bakarrik erroldatuta badago edo guraso edo bikotekide ez direnekin erroldatuta badago, kide bakartzat joko da.

8. 101 eta 106 urratsen artean ez da lagunduko aldez aurretik diruz lagundutako urratsik. 107 – 109 eta 110 – 112 urrats tarteetan, ordea, hauen zailtasuna kontuan hartuta, berriro lagundu ahal izango dira, gehienez, aurretik diruz lagundutako bi urrats (bat tarte bakoitzean). Hala ere, ikaslearen azken hiru ikasturteetako ikas prozesua hartuko da kontuan eta aurretik diruz lagundutako edozein urrats berriro lagunduko da, ikasleak ikas prozesua, gutxienez, bi (2) urtez eten balu.

7.1. Cuando el o la solicitante esté empadronado con sus padres:

7.1.1. Para que se le considere miembro único deberá cumplir uno de los siguientes requisitos:

- presentar su propia declaración de renta.
- no figurar en la declaración de renta de sus padres, y aportar un certificado de la Diputación Foral de Bizkaia que indique que no ha realizado declaración propia.

7.1.2. No se considerará miembro único al solicitante si figura en la declaración de renta de sus padres; en este caso, se tomarán por miembros computables los padres y los hermanos y hermanas que aparezcan en ella.

7.2. Cuando el o la solicitante haya formado su propia unidad familiar, se considerarán asimismo miembros computables tanto la pareja como los hijos/as que figuren en la declaración de la renta.

7.3. Cuando sólo el o la solicitante esté empadronado/a solo o cuando lo esté con personas que no sean sus padres o pareja, será considerado como miembro único.

8. En los niveles comprendidos entre 101 – 106, no se subvencionará ningún nivel previamente subvencionado. Sin embargo en los niveles comprendidos entre 107 – 109 y 110 – 112, teniendo en cuenta la dificultad de los mismos, podrán ser subvencionados de nuevo, como máximo, dos niveles (uno en cada tramo) subvencionados anteriormente. No obstante, se tomará en cuenta el proceso de aprendizaje del alumno/a de los últimos tres años, aceptándose la subvención de cualquier nivel

anteriormente subvencionado en los casos en que el o la alumno/a hubiese abandonado el proceso de aprendizaje durante al menos dos (2) años.

9. HABEk emandako diru-laguntzak eskatzea, baldin eta deialdia egiten bada eta erakunde honek eskatzen dituen baldintzak betetzen badira.

9. Solicitar las becas que otorga HABE, en el caso que se convoquen y se cumplan las condiciones exigidas por dicho organismo.

10. Ez du diru-laguntzarik jasoko honako egoeretako batean dagoen pertsonak:

10. No podrán ser beneficiarias de las ayudas, las personas en las que concurran las siguientes circunstancias:

a) Barakaldoko Udalarekin ordaindu gabeko zorrak izatea.

a) Tener deudas pendientes con el Ayuntamiento de Barakaldo.

b) Epai finko baten bitartez diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubiderik gabe geratu izana.

b) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

c) Edozein arrazoi dela medio errudun jo izanak Administrazioarekin izenpetutako kontratu oro behin betiko bertan behera uztea eragin izana.

c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

d) Diru-laguntzak itzultzeko obligazioa bete ez izana.

d) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

e) Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluak jasotzen duen beste edozein egoera.

e) Cualquier otra circunstancia de las previstas en el art. 13 de la LEY 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

5. ARTIKULUA - AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

ARTÍCULO 5.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Aurkeztu beharreko dokumentazioa urtean urteko deialdian zehaztuko da.

La documentación a aportar se precisará en la convocatoria anual.

6. ARTIKULUA - DIRU-LAGUNTZAK EBATZI ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

ARTÍCULO 6.- ASIGNACIÓN DE LAS AYUDAS Y CRITERIOS DE VALORACIÓN

a) Diru-laguntzen zenbatekoa jasotzen den eskabide kopuruaren eta aurrekontu partidan dagoen diru

a) La cuantía se resolverá en función de las solicitudes recibidas y de la dotación de la partida presupuestaria.

kopuruaren arabera ebatziko da.

b) Laguntza, gehienez, matrikula gastuen % 80 izango da, beti ere ondorengo irizpideen arabera:

ONURADUN ARRUNTA			
IKASTURTEA (urria – ekaina)		TRINKOAK, BARNETEGIAK	
3 urrats gaindituta	% 60	Ikastaroa gaindituta	% 60
2 urrats gaindituta	% 40		
Urrats 1 gaindituta	% 20		

BERARIAZKO ONURADUNA (gurasoak, langabetuak, OEren jasotzaileak)			
IKASTURTEA (urria – ekaina)		TRINKOAK, BARNETEGIAK	
3 urrats gaindituta	% 80	Ikastaroa gaindituta	% 80
2 urrats gaindituta	% 50		
Urrats 1 gaindituta	% 25		

c) Langabezia egoeran dauden pertsonek edo Oinarrizko Errenta jasotzen dutenek ezin badute egiaztatu egoera hau ikastaroak dirauen denbora guztian, proportzionalki egingo zaie kalkulua; hala, langabezian edo Oinarrizko Errenta kobratzen egon diren denboran berariazko onuraduntzat joko dira, eta gainontzeko denboran onuradun arruntak izango dira.

d) Diru-laguntzaren zenbatekoari eskatzaileak beste erakunde edo enpresaren batetik jaso lezakeen laguntza publikoa edo pribatua gehituta, emaitzak ezin izango du matrikularen zenbatekoa (% 100) gainditu. Horrela balitz, Udal honek emandako diru-laguntza era proportzionalean murriztuko litzateke.

e) Urteko deialdiak talde onuradun bakoitzari eman ahal izango zaion gehieneko kopurua ezarriko du, ondorengo irizpidea aintzat hartuta: *HABEk homologatutako Barakaldoko*

b) La ayuda cubrirá como máximo el 80% del coste de la matrícula, conforme a los siguientes criterios:

BENEFICIARIO/A ORDINARIO/A			
CURSO ANUAL (octubre – junio)		INTENSIVOS, BARNETEGIS	
3 niveles superados	60%	Superación del curso	60%
2 niveles superados	40%		
1 nivel superado	20%		

BENEFICIARIO/A ESPECÍFICO/A (padres/madres, parados/as, perceptores de la RGI)			
CURSO ANUAL (octubre – junio)		INTENSIVOS, BARNETEGIS	
3 niveles superados	80%	Superación del curso	80%
2 niveles superados	50%		
1 nivel superado	25%		

c) A todas aquellas personas que se encuentren en situación de desempleo o sean perceptores de la RGI y no puedan acreditar esta situación durante la duración total del curso objeto de subvención, se les aplicará un cálculo proporcional, mediante el cual durante el tiempo en que hayan permanecido en situación de desempleo o percibiendo la RGI se les considerará como beneficiarios/as específicos/as, y el resto del tiempo se les computará como beneficiarios/as ordinarios/as.

d) La cuantía de la subvención, sumada a otras subvenciones públicas o privadas que el o la interesado/a pudiera percibir de cualquier otra empresa o institución no podrá, en ningún caso, superar el importe de la matrícula (100 %). Si así fuera, se reduciría proporcionalmente la subvención otorgada por este Ayuntamiento.

e) La convocatoria anual establecerá el importe máximo a conceder a los o las beneficiarios/as, en base al siguiente criterio: *el coste de la matrícula más elevada de un curso*

euskaltegietan egon litekeen urte osoko (urria – ekaina) ikastaro presentzial baten kosturik altuena.

presencial de duración anual (octubre – junio) que se ofrezca en cualquiera de los euskaltegis de Barakaldo homologados por HABE.

f) Eskabide guztiei dagokien zenbatekoa deialdiak finkatzen duen aurrekontua baino handiagoa bada, ebazpen-organoak proportzionalki banatu beharko du aurrekontua onuradun izateko eskakizunak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean, eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntzaren arabera, eta hein berean murriztu beharko du ematen dituen diru-laguntzen zenbatekoa.

f) Si la cuantía derivada del número de solicitudes excediese del presupuesto disponible que se señala en la convocatoria, se efectuará una prorrata entre todas aquellas que cumplan todos los requisitos para ser beneficiarios/as y en función de la subvención correspondiente a cada uno de ellos/as, con reducción en un mismo porcentaje.

g) Eskabide guztiei dagokien zenbatekoa deialdiak finkatzen duen aurrekontua baino txikiagoa bada, ebazpen-organoak proportzionalki banatu beharko du aurrekontua onuradun izateko eskakizunak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean, eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntzaren arabera, eta hein berean gehitu beharko du ematen dituen diru-laguntzen zenbatekoa. Hala ere, gehitze honek ezin izango du, inola ere, matrikularen kostuaren %100 gainditu, ezta deialdiak ezarriko duen banatzeko gehieneko kopurua ere.

g) Si la cuantía derivada del número de solicitudes fuese inferior al presupuesto disponible que se señala en la convocatoria, se efectuará una prorrata entre todas aquellas que cumplan todos los requisitos para ser beneficiarios/as y en función de la subvención correspondiente a cada uno de ellos/as, con incremento en un mismo porcentaje. No obstante, este incremento en ningún caso superará el 100% del coste de la matrícula, ni el importe máximo a conceder que establezca la convocatoria anual.

h) Araudi honetan aipatu diren hainbanaketa guztiak eskatzaile bakoitzari dagokion gehieneko kopuruaren arabera egingo dira.

h) Todas las prorratas a que se refiere la presente Norma se aplicarán en su caso sobre la cuantía máxima a que puede optar cada solicitante.

7. ARTIKULUA - PROZEDURA ABIARAZTEA

Diru-laguntzen esleipen prozedurari ofizioz emango zaio hasiera Barakaldoko Alkate-Presidenteak edo, bere izenean, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako deialdiaren bitartez. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren xedapenak eta emango diren diru-laguntza guztien zenbatekoa gastatzeko baimena bildu behar ditu deialdiak.

Eskabideak Barakaldoko Udaleko

ARTÍCULO 7.- INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO

El procedimiento de concesión de subvenciones se iniciará mediante convocatoria aprobada por el Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente o en caso de delegación por la Junta de Gobierno Local. La convocatoria contendrá los extremos establecidos en la Ley General de Subvenciones y la autorización de gasto por el importe global de las subvenciones a conceder.

Las solicitudes deberán presentarse en el

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, bertara jota edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideak erabilita. Eskabide eredu normalizatua Udaleko Euskara Zerbitzuan (Udaletxea, beheko solairua) eta Udaleko web orrian (www.barakaldo.org) egongo da eskuragai.

Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Barakaldo, bien directamente o bien por cualquiera de los procedimientos previstos al efecto en el artículo 38.4 de la vigente Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, con arreglo al modelo normalizado, que estará disponible en el Servicio Municipal de Euskera (Ayuntamiento de Barakaldo, planta baja) y en la página web del mismo ayuntamiento (www.barakaldo.org).

Eskabideak behar den moduan beteko ez balira edo aurkeztu beharreko dokumentazioan hutsunerik balego, Arloko zinegotzi delegatuak hamar asteguneko epea emango dio interesdunari hutsuneak bete, akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkeztu ahal izateko. Egin beharreko zuzenketak epe horretan egingo ez balira, eskaera bertan behera geratu eta artxibatu egingo litzateke.

Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos, el Concejal-Delegado del Área órgano instructor del procedimiento, requerirá al interesado/a para que en el improrrogable plazo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos. En caso de no atender el requerimiento en dicho plazo, se tendrá al solicitante por desistido de su solicitud, y se procederá al archivo de la misma.

Beharrezkoa balitz, instrukzio organoak bestelako dokumentazio osagarria eskatu ahal izango lieke eskatzaileei ebazpena eman ahal izateko. Errekerimendua emandako epean beteko ez balitz, eskaera bertan behera geratu eta artxibatu egingo litzateke.

En los casos en que se considere necesario, el órgano instructor podrá requerir a los peticionarios/as cuanta documentación complementaria se estime oportuno para poder proceder a la resolución. Si no atendiesen el requerimiento en el plazo concedido, se les tendrá asimismo por desistidos de la solicitud, procediéndose al archivo de la misma.

8.- ARTIKULUA - TRAMITAZIOA

Eskabideak Alkate-Presidente jaunak (edo bere izenean, Tokiko Gobernu Batzarrak) ebatziko ditu Alkatetza Dekretu baten bitartez, Epaimahaiak eskabide epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita, gehienez, 3 hilabetera egingo duen proposamena aztertu ondoren.

Aurreko atalean aurreikusitako epea beren beregiko ebazpenik eman gabe igaroko balitz, eskaera ukatutzat jo ahal izango da.

ARTÍCULO 8.- TRAMITACIÓN

Las solicitudes serán resueltas por el Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente a través de un Decreto de Alcaldía, (salvo delegación en la Junta de Gobierno Local), a la vista de la propuesta formulada por el Tribunal Calificador en el plazo máximo de 3 meses a contar partir del día siguiente a la finalización del plazo de solicitudes.

En el caso de que transcurrido dicho plazo, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha

Nolanahi ere, berariazko ebazpena emateko betebeharra izango du administrazioak.

sido denegada, sin perjuicio del deber de resolución posterior de forma expresa.

Diru-laguntzak esleitzeko edo ukatzeko Alkatetza Dekretua edo Tokiko Gobernu Batzarraren Akordioa Udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da. Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio-bidea; hala ere, berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkez daiteke haren aurka, Alkate-Presidenteari zuzendua, hilabeteko epean (1) ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean (2) ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

El Decreto de Alcaldía o Acuerdo de Junta de Gobierno Local de concesión o denegación será publicado en el tablón de anuncios y en la página web de la Corporación y contendrá expresa mención a que agota la vía administrativa y a que podrá ser recurrido, interponiendo contra el mismo recurso de reposición, con carácter potestativo ante el Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de la notificación o interponiendo recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses a computar del mismo modo.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok ebazpenaren aldaketa ekar lezake.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

9.- ARTIKULUA - EBAZPENA

Aurkeztutako eskabideak analizatzeko eta ebaluatzeko, Kalifikazio-Epaimahai bat eratuko da, honako hauek osatuko dutelarik: Euskara gaian eskuduntza duen zinegotzi delegatuak (epaimahaiburua), Euskara gaian eskuduntza duen arloko zerbitzuburuak, eta euskara teknikariak. Epaimahaikide hauek hitza eta botoa izango dituzte. Euskara Zerbitzuko administratiboa Epaimahaiaren idazkaria izango da; hitza izango du, baina botorik ez.

Epaimahaiak, Araudi honek jasotzen dituen ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamen bat egin eta Alkate-Presidente jaunari helaraziko dio, honek Alkatetza Dekretu baten bitartez (eskumen hau Tokiko Gobernu Batzarraren ardurapean utzi ezean) dagokion ebazpena egin dezan. Epaimahaiak inoiz ez die eskatzaileei entzuteko tramiterik onartuko, ebazpenean interesdunek eskabidearekin batera aurkeztutako alegazio edo probak baino ez

ARTÍCULO 9.- RESOLUCIÓN

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un tribunal calificador, integrado con voz y voto por el Concejal-Delegado competente en materia de Euskera, que ostentará la condición de Presidente, el Jefe de Servicio del Área competente en materia de Euskera y la técnica del Servicio de Euskera. El administrativo del Servicio de Euskera, ejercerá como Secretario del Tribunal calificador con voz pero sin voto.

El Tribunal calificador, atendidos los criterios de evaluación de la presente Norma, formulará una propuesta de resolución, que elevará al Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente, a fin de que dicte la correspondiente resolución a través de un Decreto de Alcaldía, salvo en los supuestos de delegación de esta facultad en la Junta de Gobierno Local. En ningún caso se concederá trámite de audiencia a los/as solicitantes en las actuaciones del Tribunal Calificador, dado que no serán

baitira kontuan hartuko.

tenidos en cuenta en su dictamen otros hechos ni alegaciones o pruebas que las presentadas junto a la solicitud por las entidades interesadas.

Deialdiak Epaimahaiak proposamena egiteko izango duen gehieneko epea xedatuko du.

La convocatoria establecerá el plazo máximo en que debe formularse la propuesta por parte del Tribunal.

10.- ARTIKULUA - ORDAINKETA

Eskumena duen udal organoak diru-laguntzak emateko jakinarazpena izan eta berehala ekingo dio diru-laguntzak ordaintzeko tramiteari.

ARTÍCULO 10.- ABONO

El órgano municipal competente, procederá a tramitar el abono de las subvenciones inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención.

11. ARTIKULUA – DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

1. Onuradunek jasotako diru-laguntza itzuli beharko dute eta diru-laguntza ordaintzen zaienetik itzuli egin behar dutela erabakitzen den arte sortzen diren berandutze-interesak ere ordaindu beharko dituzte Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluek aipatzen duten egoeraren batean badaude.

2. Bi administrazio publikoren edo gehiagoren diru-laguntzak bateratzen badira eta itzuli egin behar badira artikulu honek xedatzen dituen baldintzetan, proportzionalki banatuz itzuliko dira administrazioek diruz laguntzen dituzten zenbatekoak.

3. Diru-laguntza ematen duen organoak edo hark izendatzen duen udal-organoak du eskumena hartzen diren zenbatekoen osotasuna edo zati bat itzul dadin eskatzeko ebazpena emateko.

4. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI.

ARTÍCULO 11.- REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde la fecha de abono de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en el supuesto de incurrir en alguno de los casos relacionados en los arts. 36 y 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

2. En los supuestos de concurrencia de subvenciones de dos o más Administraciones Públicas sujetas a la condición de reintegro establecida en este párrafo, el reintegro se aplicará mediante prorrateo de las cantidades subvencionadas por aquellas Administraciones.

3. El órgano competente para adoptar la resolución de requerimiento de reintegro total o parcial de los importes percibidos será el órgano que concedió la subvención u órgano municipal en quien delegase esta función.

4. El procedimiento de reintegro se iniciará de oficio, y se regirá por las disposiciones generales sobre procedimientos administrativos contenidas en el Título VI de la Ley

tituluak administrazio-prozedurei buruz ezartzen dituen xedapen orokorrek arautuko dute. Prozedurak irauten duen bitartean, esan beharrekoa esateko hamar (10) laneguneko epea eman behar zaie interesdunei.

30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en el mismo se dará, en todo caso, trámite de audiencia al interesado/a por plazo de 10 días hábiles.

5. Diru-laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen duen ebazpenak arrazoitua izan behar du, eta berariaz adierazi behar du zergatik itzuli behar den diru-laguntza, zenbat itzuli behar den eta zein den nork bere kabuz itzultzeko epea. Halaber, ohartarazi behar du, diru-laguntza finkatzen den epean itzultzen ez bada, premiamendu-bidera joko dela.

5. La resolución por la que se determine la obligación del reintegro de la subvención será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, indicará la cuantía que debe reintegrarse y el plazo voluntario para su ingreso, con la advertencia de que de no efectuar el reintegro en el plazo concedido, se procederá por la vía de apremio.

6. Diru-laguntza itzultzeko betebeharraz gain, beste zigor batzuk ezar daitezke.

6. La obligación de reintegro será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

12. ARTIKULUA - LEGE-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Laguntzaren onuradunak Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorraren IV. Tituluaren 1. Kapituluak xedatzen dituen egintzak edo hutsegiteak burutzeak Legeak berak ezartzen duen zehatzeko prozedura abiaraztea ekarriko du. Prozedura hau Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta EAEko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezartzen dituzten xedapen orokorrek arautuko dute.

Zigorren bat jartzeak ez du inola ere ekarriko behar ez bezala jasotako laguntza itzultzeko betebeharra bete behar ez izatea.

ARTÍCULO 12.- INFRACCIONES Y SANCIONES

La comisión por el o la beneficiario/a de la subvención de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas en el Capítulo I del Título IV de la Ley General de Subvenciones dará lugar a la apertura de un procedimiento sancionador conforme a lo dispuesto en la propia Ley, procedimiento que se regulará por lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y la Ley 2/1998, de 20 de Febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la CAPV.

La imposición de cualquier sanción será en todo caso independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

XEDAPEN GEHIGARRIA

BAKARRA.- Ordenantza honetan beren-beregi agertzen ez denari Diru-laguntzei

DISPOSICIÓN ADICIONAL

ÚNICA.- En lo no previsto expresamente en la presente ordenanza será de

buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, ezargarria den hura garatzeko araudia nahiz sektorekoa eta Herri Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezarriko zaizkio.

aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, demás normativa de desarrollo o sectorial que resulte de aplicación, y la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

AZKEN XEDAPENA

BAKARRA.- Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak dioenarekin bat etorriz jarriko da indarrean.

BIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. artikuluak xedatzen duenari jarraiki, Araudia bere osotasunean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, legeak ezartzen duen 15 asteguneko epea igarota indarrean sar dadin.

HIRUGARRENA.- Itzul dadila espedientea Kultura, Hezkuntza, Euskara, Kirolak, Gazteria eta Kalitatea arlora.

LAUGARRENA.- Araudi honen onarpenak bere osotasunean indargabetzen du Barakaldoko Udalbatzak 2012ko ekainaren 28ko 9/2012 zenbakiko bilkura arruntean onartutako *Euskara ikasteko helduentzako diru-laguntzak emateko araudia*.

DISPOSICIÓN FINAL

ÚNICA.- La presente ordenanza entrará en vigor con arreglo al artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

SEGUNDO.- Publicar íntegramente la citada Normativa en el Boletín Oficial de Bizkaia, entrando en vigor una vez transcurra el plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 65 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

TERCERO.- Devuélvase el expediente al Área de Cultura, Educación, Euskera, Deportes, Juventud y Calidad.

CUARTO.- La aprobación de esta normativa deroga en su totalidad la anterior *Normativa reguladora para la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje del euskera*, aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria nº 9/2012 de 28 de junio de 2012.

Ados
EUSKARA TEKNIKARIA
Mertxe Andrés Guerrero

ARLOKO ZINEGOTZI DELEGATUA
Nerea Cantero Gurtubay

Haren berri hartuta / Tomé Razón

ALKATE-UDALBURUA
Amaia del Campo Berasategui

IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL,
Humberto Estébanez Martín

Dekretu honek ez du baliorik izango, baldin eta ez baditu Udal Idazkaritzan horretarako dagoen Alkatetzako Dekretu eta Ebazpenen Liburuko inskripzioari dagokion kaxetina eta prozeduran interesa duten hirugarrenei egindako trasladoan Agiri Irteerako Udal Erregistroko zigilua.

El presente decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción del mismo en el Libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía, obrante al efecto en la Secretaría Municipal, y la estampilla del Registro Municipal de Salida de Documentos en los traslados a terceros interesados en el procedimiento.